

Trikitxaga taldea

Azkaingo Kornelio eskola

MJ 2022/11/28

Begiak farrez farrez

bihotza nigarrez (*berritz*)

Halaxet joaiten nintzan maitia,
zukanik dolorez. **ai ai ai...**

La lara lalala lalala lala.....

Xoriñoa kaiolan

egoiten da triste (ber.)

Ni ere ez naiz kontsolaturen,
zu ikusi arte! **ai ai ai...**

Nere maite pollita,
zu non zira bizi (ber.)

Joan den aspaldi, ene maitia,
ez zaitut ikusi, **ai ai ai...**

Palazio eder bat

haitzaren gainian (ber.)

Ez da euririk sartzen maitia,
ateri denian! **ai ai ai...**

Arrosarikan ez da
arantzarik gabe (ber.)

Ez eta ere amodiorik
penarikan gabe **ai ai ai...**

Bale ihizi

Ni itsas xoria banintz,
iparreko izotz lurretarat,
Joan nintaike hegaldaka,
bale itsu gizenen ondotik.

Itsasoa harroa dago,
haizeak oro tzarrear,
Eta gu ezin kontsola
etxe goxoa gogoan harturik.

Zoin asto izan behar den
ala guziz miserian bizi,
Ur-untzirat igaiteko,
bale bakartiaren hiltzaile.
Sos poxika baten gatik
zonbat arrixkurik ez den :

Ur-untzia uzkeilirik,
buztan aserretuak leherturik.

Lana gustukoa zaio
arrantzale-gai den gazteari.
Bainan ikaretan dago
bale basa hurbiltzen denean.
« Lot lanari ! Erna gaiten ! »
dio kapitaina jaunak.

Mariñela eri dago,
gorputz arimak errotik daldaran.
Borroka hasten denean,

uhain zoroak jauzia gora,
abereak zaurituta
odol basa zurrutan dario...
Oligo hexur partea,
sos gutirekin saritzat,
moltsa arin itzultzen da
gaztea Ziburuko tabernarat.

Baratze bat

Hau da egün ederra
mila xoriek kanta
zaauri en`erregina
besoak zuri di/titzüt para.
Baratze bat nahi deizüt egin
amets segretüenekiilan
liliak egün jauntzi ederrenetan
mila kolorez dantzan bihotzetan
Gaü beltz ta sakonetik
elkitzen nüzü hoztürik
bihotza hain tristerik
zütaz hainen berant/etsitürik
Karrosa bat hor dügü
kanpoan gure aidü'ü
ez gal habo'o denbora
hiskor beitaago a/modioa
Maitarzün berriari

ilargiak dü Argi
eemanen deio aski
gük alkar maita de/zagün beti.

Kuba

Kuba bai pollita dela
Kubanidak dantzana dabilzan
Hantxet igaroko ditut
hurongo oporak datozen

Ama, Joan behar dut

Habanara dantzatza 2

Bai bai, hango neskatillak
leialak direla esaten dute
Eta, hemengo mutilla
Jolas egiteko nai omen dute.

Musika

Ama Joan behar dut

Habanara jolastara 2

Kuba, bai pollita dela
Kubanidak dantzana dabilzan
Hantxet igaroko ditut
hurongo oporak datozen

Laja, Eguren eta Ziolar

Oriko xoria

Jente gaztia dabila
Etzetik hurrun lanila
Ez erran galdurik dela :
Ützül ditake beerhala

Jin bedi gure artila

Orhiko txoria Orhila 2

Txoriak jiten zaizkula
Huts egin gabe sekula
Lehenik bat, gero mila :
Txortak egiten iixtila.
Txorittuaren hegala
Arhin aidia bezala :
Gaztek begira dezala
Azkar üskaldun oodola.
Txoria izan dadila
Üskaldun gazten mudela :
Mothiko ta neskatala,
Tziauste denak sor leekhila.

Migruela* sagarnoa.

Landu, landu lur berean,
migruela, landarezkoa
ta sagarra, eman dezaten,
fruitu eder ta sanoa.

Maita, maita gehiago!

Ez, ez dute gaina hartuko
ezbeharrek, gure baitako
kantu hunek diraueno:

“Txarrez hustu, onez bete,
maitasunez. Ederrez eder,
beti ondu itxaropenez.

Unez une atxik baikor!”

Maitasuna gora doa.

Kanta kanta jendetasuna;
Edan edan, zuk jende ona,
migruela sagarnoa.

“Txarrez hustu, onez bete,
maitasunez. Ederrez eder,
beti ondu itxaropenez.

Unez une atxik baikor!”

** fruit du grenadier*

Ikusi mendizaleak

Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera igo behar dugu.
Ez nekeak, ez da bide txarra; gora gora,
neska-mutilak, a, a, a,
Gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak.
Hemen mendi tontorrean,
euskal lurren artean,
begiak zabaldurik, bihotza erreta.
Hain ederra, hain polita da ta,
gora, gora Euskal Herria, a, a, a,
Gu euskaldunak gara, Euskal Herrikoak.

In nomine Etxamendi

In nomine patris et filii

Gora jautzi ta duzu erori
Zerurat ainitz bai zuen igorri
Laguntza zor ginuen Carrerori.
Jenden lasterkatzaile krudela
Bera die igorri up! la ra...
Aingeruak otoiztuz berehala
Hola hola izorra zadila
Ite ite misa est.

Madrílek eta Parisek ere
Bi gauzaren ikastie on die
Eskualdun ta ttipien zanpatze
Ezin da iraun eternitate.

Kalera

Altxa begiak, zabaldu orok
deiadarra lagunari
berriro izanen gaituk libre
indar emanaz iraultzari.

**Kalera, kalera, borrokalari kalera,
kalera, kalera, borrokalari kalera,
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera.**

**Zain dago ama, zai aita
zain andre ta lagunak
hator, hator Euskadira,
hator, hator etxera.**

Bultza ta bultza, euskal langile,
Euskal Herri sufritua
burni kateak geldi labetan
danba danba, bota gartzelak.

Triste bizi naiz eta

hilko banintz hobe
Badauzkat bihotzean
zenbait atsegabe
Dama bat maitatzen det
bainan haren jabe
sekulan izaiteko
esperantzik gabe.

Bihotz baten lekuan mila baniztuzke
guziak zuretake izanen litezke
bainan mila lekuan
bat bertzerik ez det
har zazu bai maitia
bat hau mila bider.

Neure maite pollita nola zeran bizi,
zortzi egun hauetan ez zaitut ikusi
uste det zabilta ni gandik ihesi
ez didazu emaiten atsegabe gutxi!

Nere amodioa hain fina izanik
beti gogoan zauzkat ahaztu gaberik
ez da mundu guzian
inor gauza* denik
dama zu maitatzeko
hainbeste nola nik. *Bilintx salbu 2.na*

Eskoziar lore

Eskoziar lore,
Noiz sortuko dira ote
zuen aantzekoak,
muño, ibarrak
zaindu zenituztenak,
Edwaard harroa
urruun bota arte?
Gogoan dute...

Udazken hostoz estaliak lotan dira
Eskooziar lurak,
muño....

Oi arbasoak! xuti-araz
Eskoziarrak, zuen aantzekoak,
muño...

The Flowers of Scotland *MJ*

Xarmegarria zira

Xarmegarria zira eder eta gazte
Ene bihotz ez du zu baizikan maite
Bertze zenbait bezala ote zira libre
Zurekin ezkontzeko dudarik ez nuke.

« Xuri gorria zira arrosa bezala
Profetak ere dira mintzo hola hola
Arabera bazinu gorputza horrela
Iduriko zinuen zeruko izarra.

Oi maitea zatozkit plazer duzunean
Nehork ikusi gabe ilunabarrean
Lagun bat badukezu joiateko bidean
Hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

Plazer eginen duzu ixiltzen bazira
Haur inorantak hola
trompatzen baitira
Ez da enetzat ina holako segida
Bertzalde zure baitan ez naiteke fida

Bella ciao

Una mattina mi son(o) alzato,
O bella ciao, bella ciao,
bella ciao, ciao, ciao,
Una mattina mi son(o) alzato,
E ho trovato l'invasor.

O partigiano porta mi via,
O bella ciao, bella ciao....
O partigiano porta mi via,
Quee mi sento di morir.

E so io muoio da partigiano,
O bella ciao, bella ciao...

E so io muoio da partigiano,
Tuu mi devi seppellir.

E seppellire lassù in montagna
O bella ciao, bella ciao...

E seppellire lassù in montagna

Sootto l'ombra di un bel fior(e).

Casi le genti che passeranno
O bella ciao, bella ciao...

Casi le genti che passeranno

Mii diranno «che bel fior(e)».

E questo è il fiore del partigiano
O bella ciao, bella ciao...

E questo è il fiore del partigiano
Moorto per la liberta..

Euskotarrak gira

Euskotarrak gira

Euskadi gur' aberria*

Euskotarrak gira

askatu Iparraldea!

Euskaldun izatea

ez da hautatzen bozkatzez

Euskaldun izatea

gure baitan dugu sortzez!

Zelda... Euskotarrak gira

Nork dauka eskubide

biziaren ixiltzeko?

Nork dauka eskubide

hil nai dugun galdatzeko?

Zelda... Euskotarrak gira

Nor da ba aski Jainko

euskara ezeztatzeko?

Nor da ba aski Jainko

bai batekin salbatzeko?

Zelda

**Guk: Euskadi da gure aberria*

Maiteak galdegin zautan

pollit niintzanez.

Pollit, pollit nintzela bainan

larrua beltz, larrua beltz !

Maiteak galdegin zautan,

premu niintzanez.

Premu, premu nintzela bainan

etxerik ez, etxerik ez !

Maiteak galdegin zautan,

moltsa banuenez.

Moltsa, moltsa banuela bainan

dirurik ez, dirurik ez !

Maiteak galdegin zautan

lanean nakienez.

Lanean, lanean, nakiela bainan

gogorik ez, gogorik ez !

« Gaixoa hil behar dugu

gu bieek gosez.

-Gosez, gosez ez naski bainan,

elgar maitez, elgar maitez! »

Epherrak

Epheerrak badititzü bere bi hegalak
Bai eta бүрүн gainin kokarda ejer bat
Zük ere balinbazünü
gaztetarsün ejer bat
Neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe
Gaiaz ebiltziia ez üken herabe
Egünaz ebiltiia desohoore leike
Txoriak ere ooro haaier soz dirade.

Ebiili izan nüzü gaiaz eta beti
Eia ! atzain nianez lili ejer hoori.
Azkenian atzamaan düt oi ! bena tristeeki
Lümarik ejerreena be..itzaio erori.

Mündiian ez da nihur penaik gabe bizi.
Nik ere badit aski hooitan segurki.
Nik desiratzen niizun ezkuntzia zurekin
Bena ene aitak eztü eentzün nahi hori.

Zure aitak zer lüuke eni erraiteko?
Ala enitzaio aski haren ofizioko
Ala zü soberaaxe zitzaio enetaako?
Printzerik ez ahal da orai zuenganako!

Larrosa kolorez

(Musika) Larrosa kolorez jantzia
beti dezu irria zure ezpainetan
agertu zure xarma fina
polita ta arina besarkatzean
makurtu zure aurpegi ederra
lotsati xamarra muxu ematean
eskeintzen didazu batera
biok jolastea nik abestean.

Larrosa kolorez jantzia 2
zu zera neretzat bizia
zu zera argia zeru urdinean.

Larrosa kolorez jantzia 2
zu zera nere beste erdia
Hauxe da egia geure artean.

(Musika) Zure begi eder ilunak
dira gaur iztunak kantu onetan
nai ditut preso eramateko
neureak izateko nik bihotzean
sakonki maite zaitut mutil / neska
aldatzerik ez da inolaz ere
eskeintzen dizudan muxua
besarkada estuak zuretzat dire.

Errepika *Musika* Errepika

Oi gu hemen

Oi gu hemen bidean galduak (3)
heriotz minez!

Gizonen itzala luzea,
negarrez haizea gauean,
arbolak erroak airean, heriotza da!
Pobreak kalean biluzik,
barnea esperantza'ik gabe,
doinua basoko trixtura, illunabarrez.

Nundikan ezinaren mina?
Zergatik errekan iluna,
egurra, kolpeka landua,
bide hustuak?

Festarik festa

Nahiz gauza asko ezagutu munduan
Bada zertxobait ta
hartu nahi dut kontuan
Ez dakit nola esplikatu kantuan
Neskatxa bat dut hemen
nere onduan.

Gure bizitza juerga eta parranda
Gero egunez lo egiten dugu etzanda
Horren errudun etsaien bat izan da
Gu non gabiltzan
seguru bera han da.

Festarik festa lan egin behar gauero
Festarik festa hor nabil ni egunero
Gure etsaia benetan dago ero
Zigortzen gaitu
inoiz hutsegin ezkerro.

Aizu neskatxa ba al dakizu benetan
Norekin hasi zeran hartu-emanetan?
Hau da egia ziur zaude horretan
Bihurtu leike maitasuna penetan.

Konplikazio anitz bada gurekin
Bizitza honi ezin diogu aldegin
Nere aukera ez bazaizu atsegin
Gure artekoa beharko da desegin

Ttiki-ttikitik

Ttiki-ttikitik aitak eta amak
fraide ninduten nonbratu,
bai eta ere, Salamankarat,
ixtudiante bidaldu.

Salamankarat nindoalarik,
bidean nuen aasmatu
ixtudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.

Ostatu xume pollit batean
gosez gelditu bainitzen,
nexka xarmant bat ari zitzaitan
mahainean zerbitzatzen
begia kartsu, ezpaina lore,
enekin aise miintzatzen,
aingeru hori, ordu berean,
ene bihotzian sartu zen.

Hitz erdi batez maite nuela
erran nion beharrira;
bainan gaixoa, herabetua,
ihesi joan zen kanpora.

Ez ahal nuzu, izar ederra,
kondenatzen ifeernura!
Ez da sekulan ene gogotik
histuko zure itxura.

Jainko maiteak egin banindu

zeruetako giltzari,
azken orenean jakingo nuen
athea nori ideki:
lehenik aitari, gero amari,
gero anai-arreeberi,
azkenian 'ta segeretuan
ene maite pollitari.

Anttoni

-Anttoni! 2 Ate ondoan nago ni...

-Ai, Anton! Ai, Anton!

Ate ondoan, hor konpon!

-Hormaxoriak, negu gorrian,
ez du atsegin elurra:

zerua goibel, kabia hotza,
ta janari gabe lurra!

Ai maite nere bihotzak duen
zure hotzaren beldurra

Bientzat kafi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

-Aiñarak ez du behin egindako
kafirik inoiz aldatzen:

Urtero beti kabi haretan
umeak ditu bazkatzen.

Baina zu Anton ainara txarra
zerentzat zaitut billatzen
jai bakoitzean neska berria

ikusten zaitut maitatzen.

-Ainarak ere bere kabia
galduta badu ikusten
biderik gabe, harat ta hunat,
kafitik du aldegiten.
Egarri dagon nire bihotza
zuk eman ezik edaten;
berriro ere ibiliko da
gogorik gabe nunbaiten.

-Zure bihotza egarri dela
erran didazu bertsotan,
nehonek ere ikasia dut arrazoi duzula hortan.
Zu beti zabiltz edari bila, ikusi zaitut askotan,
bainan, neurriz gain, egarri hori itotzen duzu ardo-
tan.

-Anttoni! Anttoni!

Zahagi zale ez naiz ni!

-Ai, Anton! Ai, Anton!

Haize freskoari gabon!

Arrantzaleak

Gu gira gu eskual kantari
tropa bat
Izendatu(a) arrantzaleak
Ta maite dugu euskal kantuak
Eta arnoa gorria.

Arrantzaleak gire bai
Donibandarrak
Itsasoa da gure ama
Ziburutarrak gire bai mariñel seme
Guk itsasoa dugu maite.

Gure arbasoak joan ziren bezala
Behar dugu abiatu
Bainan aldiz ez arrantzarat
Egun behar dugu kantatu.

Etorri gira zuek alegeratzerat
Bakearen ekartzerat
Denek bet-betan kanta dezagun
Ez gira gu bate ilun.

Zazpiak oihal batetik

Mundu guziak aditutzen du
Euskaldunaren negarra
Alde batera nahiago nuke
Ez banintz hemengotarra

**Enpeinatzea ez bada libre,
Alferrik dugu indarra.**

**Hau da txoriak gari tartean
goseak egon beharra.**

Antzerki huntan lau pertsonaia
Ta jokolari bakarra
Arbolak berak erakusten du
Ostoa eta adarra.

Sutan pizturik darrai oraindik
Sugai berriz lehengo gerra
Oharkabea etzen mintzatu
Txirrita poeta zarra.

Zazpi ahizparen gai den oihala
Ebakirikan erditik
Alde batera hiru soineko
utzirikan lau bestetik

**Guraiziaikin berezi arren
bakoitza bere aldetik
ezagutzen da jantzi direla
zazpiak oihal batetik**

Oihal bera da gure jantzia

Sortu gintuzten unetik ;
Ez du munduak kemenik sortu
kentzeko gure soinetik.

Gazte naiz eta

lorios izpiritua kurios
Batez agrados besteaz jelos
mutil gaztekin gaau oroz
Mutil gaztekin gau oroz eta
nundik naiteke maluros.

Aita eta ama etzatzen dira
biak ganbera berian
Ez dira nitaz ainitz oroitzen
berak ontsa direnian
jeloskeriarik ez izaiteko
ni maiteñoaren aldean.

Ate xokoan makila eta
leihoa azpian zurubi
Ene maitia handik sartzen da
segeretuan pruudenki,
segeretuan prudenki eta
amak oraino ez daki.

Topa dagigun!

Errioxar Baigorriko,
Bakio nahiz Getariko
Topa dagigun eta bakean
bizi gaitezen betiko* (bis)

Umeak arretaz horni,
gazteei hitza eskaini,
gaztetxoago eta haurrago
izan gaitezen geroni. (bis)

Ez uka amonei hitzik,
entzun agureei pozik
Zaharra ez da izandakoa
luzaroan dena baizik. (bis)

Hierarkia da lehorra,
harremana emankorra
Errespetuan dago gordeta
emakumeen altxorra. (bis)

Nire Aberria

Nire aberria lurra bezain zaharra da
Baina ez da lurra bakarrik
Haizeak bezala inguratzen nau eta
Lotzen, askatzen nauelarik.

Nire aberria suaren antzekoa da
Beti bera, berria beti
Epeltzen nau kanpoan
hotz dagoenean
`ta erretzen ere badaki

**Aberriaren mugak euskararenak
gure baitan daude gehienak;
euskara zabalduaz lau haizeetara
zabalago egiten gara.**

Nire aberria harrizko herria da
Hitzezkoa eta hitzekoa
Altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa
Eta hondar anonimoa.
Nire aberria burdin bihurria da
Oroimenean arindua
Itsaslaminen baten
herdoilezko kantu
Etorkizunez fosildua. *J.Garzia / Artola*

Ziburutik Sarara

Ziburutik Sarara izatu naiz joana

Neure lehenagoko maite baten gana

Han arribatu gabe, aitu nuen fama

Guarda gazte batekin zela hitzeman

Sara hortan badute neskaxa pollitik

Zu, dendari gaztea, ororen gainetik

Abandonatu nauzu maitatuz geroztik

Nihun ez dut ikusi zu bezen arinik.

Zuk hemezortzi urte,

nik beste hanbeste

Amodiotan ginen ginelarik gazte.

Zu maltzurra zinela,

nik ez nuen uste,

Ni pena xangrinetan,

zu kontsola zaite !

Loale zinela kotz zinena lokartu ?

Zendako etzinuen athea zerratu ?

Etzinena lotarik berant iratzartu ?

Denborak behar dauzu

kolpea sendatu...

Guarda gazte hoietan

konfidatzen denak

Ardura izanen 'tu bihotzian penak

Beti behar luzkete gazte politenak

Arrakasta guti du zahartua denak !

Maitia bizi zaite gazte ta lorios,
Bai eta fidel egon hitz emanez geroz.
Ondoko urrikiak ez dira serios,
Hortan kitatzen zaitut, maitia, adios !

Unama

Haizea dator mendebaltetik,
Zurituz uhain bortitzak,
Harkaitzei buruz eramaten du
Itsas untzia enbatak.
Hodei beltzekin dantzan dabilta
Bela zuri urratuak,
Ur indarraren joan etorriei
Ezin eutsi lemazainak.

Laino artetik agertu zaie
Antxeta moko gorria,
Ilunpe heze horretan barna Itsasoko gidaria ;
Hesi gabeko ortzian zehar
Dizdira lasaigarria,
Begi gardenek ahaztu dute
Ur sakonen mugarria.

Itzal luzeek beldurtzen dute
Olio su dardartia,
Ohol artetik untzi barnera Kresal usain basatia.
Urpera doaz untzi gizonak
Bergia izuz betea / **Unama** eta zur zatiekin /
Hondarrean etzatera.

Aitoren hizkuntz zaharra

nahi degu zabaldu,
munduaren aurrean, gizonki azaldu.
Baldin gure zainetan, odolik badegu,
euskalduunek euskaraz
hitzegin behar degu. (bis)

Zein hizkuntza ederra,
euskara gurea!

inun ez det aurkitzen
beste bat hobe!

Usai goxodun hizkuntz
txukun ta argia,
biraorikan ez duen
hizketa garbia. (bis)

Gora euskera maitea, xoragarriena,
euskaldunen artean maitagarriena.
Munduan sortu zanik,
hizkuntza zaharrena
gora ta gora euskalduna
eta gure euskara. (bis)

Nevadarat joan nintzan

Dirurikan gabe

Handik itzultzekotan, maitia,

Bortz miliunen jabe Ai, ai, ai, ai, ai

Ametsaren lana

Ait'amen erranetarik barna

Ibili bagina

Begiak zorrotz eta memoria argi,

Ez den ez den tokian, maitia,

Aztaparrak garbi

Urteak joan ziren

On 'ta tzar nahaste

Gure fortuna heiekin eta

Denak berritz haste !

Moltsa arin dut bainan Aberats gogua

Nere fortuna zare, maitia

Nere sosegua !

Pilotarien biltzarra

Agur, agur, jente güzik !

Agur bihotzetik

Zaharrak eta gaztiak bildürik hürrüntik

Eskualdün joko jaunari

bere lür harrotik

Lili eder bat da egün

zabaltzen itzaletik.

Gizon gaztentako beharra

Ta zaharren indarra

Gora khanta obra ederra,

Pilotarien biltzarra.

Gure Jinko Jaunak deizkü

ezarri mündian

Txorik khantüz oihanian

et'ardik mendian,

Untzietan mariñelak itsaso-erdian

Eta pilota maitia Eskual-Herri aldian.

Arbolarik ederrena oihanian haitxa,

Aize handirenak dio eztela ez tatxa:

Eskualdün pilota horri ez besuak khütxa ;

Bethi nausi izan dadin,

denek dezagün altxa

La mina Maria Luisa

En la mina Maria Luisa, La la ra la ra la ra (2)

Han muerto unos mineros mirar,

Mirar Marusiña mirar, Mirar como vengo yo. (2)

Tengo la garganta rota, **La la...**

De gritar por lo que es nuestro **mirar..**

Traigo la camisa roja, **La la..**

De sangre de un compañero **mirar..**

Accionistas capatazes, **La la..**

Soys unos hijos de puta **mirar..**

Santa Barbara bendita, **La la..**

Patrona de los mineros **mirar..**

Maitia nahi badezu

Maitia nahi badezu nerekin ezkondu

Goizean goiz ohetik

jeiki beharko dezu

Ohetik ohetik ohetik eta ohetik

Gero gosaaldutzera ni zure ondotik.

Gosaldu eta gero lagun arterako

Eman beharko nauzu patrikaarako*

Jokorako zurrutako huntarako eta hartarako

Nerekin bizi modurik ez duzu aterako.

Kaiolan sartu naute xoria bezala

Erraitea gantikan zurea naizela

Maitia tristia ni zurea eta zu nerea

Neria zerala eta kontsola zaitea

**Sakelarako*

Aurkibidea

Artillero

Artillero, dale fuego
ezkontzen zaigula pastelero.

Eta zeñekin eta norekin
prasku mozkoraren alabakin.
Eta zeñekin eta norekin
opo zikiñaren alabakin.

Eusko euskotarrak gara

Eusko, euskotarrak gara
Eta maite dugu aberria, Euskal herria
Eusko, euskotarrak gara
Eta maite dugu aberria...
Aufa mutillak,

Maita dezagun Euskadi
Askatasuna emanez guri (2)

Maddalen

Zutaz oroitzen naiz nere Maddalen
etxetik urrun nabil maite zaitudan arren
Festa bakar hartan azaldu zinen
dena esango dizut maite zaitudan arren

Salto ta algara egin dugu aurten
ia puskatu zaitut maite zaitudan arren
Baina bukatu da seguru naiz zeren
etxetik urrun nabil maite zaitudan arren

J. Tapia

Kontrapas

Garaziko herria benedika dadila,
euskarari eman dio behar zuen tornua!

Euskara, euskara jalgi hadi plazara!

Bertze jendek uste zuten ezin

eskriba zaiteien

orain dute porogatu engainatu zirela!

Euskara euskara jalgi hadi dantzara!

Bertzeak oro izan dira beren goien gradora
orai hura iganen da bertze ororen gainera!

Euskara euskara jalgi hadi mundura!

Oraindano egon bahaiz imprimitu gaberik
hi engoitik ebiliren mundu guzietarik. (bis)

Euskara euskara jalgi hadi kanpora!

plazara! dantzara! habil mundu guzira!

Guk euskaraz

Guk euskaraz zuk zergatik ez (2)

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen,

Eta zuek denok, ur gazi bat

atera zenuten handik nekez. (2)

Orain zuen birtutez zuen indarrez 2

Euskara itsas urdin eta zabal bat izanen da eta
geuria da. (2) *Urko*

Txoria txori.

Hegoak ebaki banizkio,
neurea izango zen ;
etzuen alde egingo;
Bainan horrela
etzen gehiago xoria izango!
eta nik xoria nuen maite...

Mikesl Laboa / Joxean Arze

Maitasuna

Maitasunaren erdian
zure begien dizdira
dirudi dela izar argi bat
zerutik begira

Maite ninduzula maite
amets egin dut gauean
amodiua senti dezaket
nere bihotzean

Zure ezpainen jolasak
zeharkatuz begirada
zu zera nere maitasuna ta
zu nere islada

Martxa baten lehen notak

Eguzkiak urtzen du goian
gailurretako eluurra
uharka da jausten iibarrera
geldigaitza den oldarra
Gure baitan datza eguzkia
iluna eta izootza
urratu dezakeen argia
urtuko duen bihotza
Bihotza bezain bero zabalik
besoak eta eskuuak
gorririk i/kus dezagun egia
argiz beterik burua

**Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
bat iñon loturik deino
ez gara libre izango.**

Bakoitzak urraturik berea
denon artean geureea
etengabe gabiiltz zabaltzen
gizatasunari bidea
Inon ez inor menpekorikan
nor bere buruain jaabe
herri guztiok bateginikan
ez gabiltz gerorik gabe

Batek gose diraueno

Eguzkiak... (Artze eta Laboa)

Nere herriko nexkatxa maite

Nere herriko neskatxa maite
Ahozko lorez zaitut gaur laztantzen
Itsaso garden, lur gozoko landare,
Kresalaren usain, zeru kolore
Nere bihotzaren taupaden hotsez
Zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia
Herri sufrituaren lamia
Ipuin zaharren piper eta eztia
Erreka garbien kantu bitxia
Udazken lizunez zaude jantzia
Izar zerutarren irria.

Lanbro artetik itsas geldira
Lehunki zoazen txori airosa
Amodiozko sentipenaren hatsa
Zure espainetan loratuz doa
Goizeko ihintzetan belardi zera
Eguzkitan zilar dirdira.

B. Lertxundi

Orreaga

“Zuhaitzetan den ederrena da
Oihan beltzean pagoa”
Orreagako mendi gainetan
Badabil, euskal gogoa :
Galernen eta gerlen artetik
Mendetan barna xut doa,
Pagadoietan ixilik ontuz
Europakoen geroa.

Zonbat gerlari, sarraskiz gose,
Odolez eta suz hordi,
Europatarrak zanpatu nahiz
Iragan denik hor gaindik !
Ibañetako mendi lepoa
Heietaz mintza baladi,
Aipa letzazke lehen lehenik
Arrolan eta Karlandi.

Buru gabetu, bihotzez hustu
Jendalde lehertuekin,
Mundu guztia nahiko zuten,
Beren azpiko bategin.
Euskal jendeak, denengatik xut,
Gogor jeikitzen du jakin
Mendi gain hautan, burua gora,
Gizonak gizon dagotzin.

Indarkeriak ezarri mugak
Kraskatzen hasi orduko,
Euskal gogoa noiz da jauziren
Arranoaren pareko ?
Azpilkueta bezain kartsuko
Eta jakintza gaitzeko
Gizon libroak noiz ote dire
Orreagatik jaliko ?

Zoin den pizgarri mendietarik
Jauzika doan xirripa...
Euskal semeak, Aiten gogoa,
Bihotz guziaz hurrupa !
Altxa burua, denek bat kanta :
Euskal gudua gaur aipa
Entzunik zuen irrintzina,
Xutik jar dadin Europa !
Lertxundi

Amodioa zoin den zoroa

Amodioa zoin den zoroa
mundu guziak badaki.
Nik maiteño bat izaki eta
beste batek eramaki...
Jainko maiteak gerta dezala enekin baino hobeki !

Azken bestetan egin nituen
izarraren ezagutzak ;
Denen artean ageri ziren
haren begi urdin-beltzak;
Irri pollit bat egin baitzautan,
piztu zauztan esperantzak

Geroztik ere mintzatu gira,
eia nahi ninduenez...
Harek bietan baietz erranik,
pentsa kontentu nintzanez !
Ez nuen uste haren agintza
betea zela gezurrez.

Orai bihotza urtua daukat
urean gatza bezala ;
Izar onaren argien ordain,
izigarriko itzala !
Ohoin tzar batek berriki joanik,
nola naiteke kotsola

Elokadiko mendian

Abenduaren lauean Elokadiko mendian
ene ardien guardian *traí lara lalai lailai*
Ene ardien guardian, freskuak hartu nindian.

Etxolan baditut bi manta
bat bertzia bezain xarmanta
otto zenaren presenta, traí lara...
Otto zenaren presenta, dena zilo ta tarrata!

Ene lagun Lauriano, ez da kexatzen oraino
holakorik egundaino, traí lara...
Holakorik egundaino, ez dut ikusi oraino!

Tan tan tan tan tarrabian, manta berria botikan
nehor ez bila abian, traí lara...
Nehor ez bila abian,
karriren dela bertze urtean!

Maria eta Kattalin, etxe zoko , biak berdín
ez dute nahi gurekin, traí lara...
Ez dute nahi gurekin,
gaurik pasatu Elokadin!

Xorieri mintzo zen

Erramun Martikorena

Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekar,
Ohianeko zuhaitzeri ‘ta zeruko izarrer
Mintzo zen haizeari,
Xoro batentzat zaukaten,
Xorieri mintzo zen,
Xoro batentzat zaukaten.

Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan,
Bainan ongi bazakien zeruko seinaletan,
Zeruko seinaletan ‘ta jenden bihotzetan.

Haurrek zuten harrikutzen
Zahar gaztek trufatzen,
Etxekoek berek ongi laneko baliatzen,
Laneko baliatzen eta gosez pagatzen.

Hil da xorua bakarrik, bakarrik da ehortzi,
Ez zen han kristau bat ere,
Salbu lau ilketari,
Salbu lau ilketari ‘ta apeza kantari.
Hil hobian ezartzean, haizea zen gelditu,
Xoriak ziren ixildu zerua zen goibeldu
Zerua zen goibeldu ‘ta jendea orroitu.

Bagare

Araban bagare, Gipuzkun bagera,
Ziberun bagire ta Bizkaian bagara. (bis)

Baita ere Lapurdi ta Nafarra.

Guztiok gara euskaldun,
guztiok anaiak gara,
nahiz eta hitz desberdinez
bat bera dugu hizkera. (bis)

Araban bagare....

Herri bat dugu osatzen
Beragan gara sentitzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera, bagire, bagara,
euskera azkartzeko
oraintxe dugu aukera.

Bagare, bagera, bagire, bagara,
Euskadi askatzeko oraintxe dugu aukera.

Araban...

Galerianoaren kantua

(Airearen 2.partearekin hasi)

Kantatzera nihazu alegera gabe,
Ez baitut probetxurik trixtaturik ere ;
Nehun ebatsi gade, gizonik hil gabe,
Sekulakotz galerak enetako dire.

Mila zortzi ehun'ta hamabortzgarrena
Ni Hazparnen preso hartu nindutena ;
Plumagaineko premu orok dakitena,
Galeretan higatu beharko naizena.

Ala zorigaitzeko premu izaitea !
Harek eman baiteraut betikotz kaltea ;
Aitari galdeginik sortzeko partea,
Galeretan eman nau, hauxe duk dotea !

Ene aita da gizon konsideratua,
Semia galeretan du segurtatua ;
Nun nahi otoitzean belaunikatua,
Saindu iduri debru madarikatua !

Ene lehen kusia, Cadet Bordaxuri,
Fagore bat banuke galdetzeko zuri ;
Ongi adreza zaite ene arrebari,
Ene saltzeko zonbat ukan duen sari ?

Aita aitzinean'ta arreba ondoko,

Osaba burjes hori diru fornitzeko ;
Ez ordian enetzat bi sei liberako,
Galeretan bederen leher egiteko !

Elizan sartzen dire debozionerekin ;
Iduriz badoazila saindu guziekin ;
Beren liburu eta arrosarioekin,
Debruak pesta onik einen du heiekin.

Zortzigarren bertsua anaiarendako ;
Kontseilu bat banikek hiri emaitako ;
Ontsa goberna hadi, etzaut dolutuko,
Ni baitan etsenplua errex duk hartzeko.

Zuri mintzo nitzaizu, oi aita zilarra !
Ardura dudalarik begian nigarra :
Zure eta ene arraza Bordaxuritarra,
Galeretan naizeno ni bainaiz bakarra.

Kantu hauk eman ditut Paubeko hirian,
Burdinez kargaturik, oi presondegian ;
Bai eta kopiatu denbora berian,
Orok kanta ditzaten Hazparne herrian.

Hok eman izan ditut, ez xangrinatzeko ;
Ahide, adixkidek, kuraie hartzeko,
Eta partikulazki, aita zuretake,
Kantu hok aditzean, semiaz oroitzeko.

Agur Xiberua

1

Sor-lekhia ütirik gazte nintzalarik,
Parisen sarthü nintzan kurajez betherik,
Plazerez gose eta бүrian hartүrik
Behar niala alagera bizi;
Bostetan geroztik nigar egiten dit, Ziberua, zuri,

Agur, Ziberua, bazter güzietako xokhorik eijerrena
Agur, sor-lekhia ! Zuri ditit ene ametsik goxuenak;
Bihotzan erditik bostetan elkhi deitadazüt hasperena.
Zü ütiz geroztik bizi niz trixterik, abandonatүrik,
Ezpeita herririk Paris'ez besterik zü bezalakorik.

2

Palazio ederretan gira alojatzen,
Eta segүr goratik aide freska hartzen,
Gaiñ-behera so-ginik betzait үdүritzen
Orhin gainer nizala agitzen ;
Ben'eztira heben bazterrak berdatzen,
Txoriak khantatzen.

3

Arnetsa, lagүnt nezak ni Atharratzera,
Ene azken egүnen han iragaitera,
Orhiko txoriaren khantүz behatzera,
Pharka ditzan nik egin nigarrak.
Hots ! Ziberotarrak, aitzinian gora uxkaldүн bandera
Etchahun - Iruri.

Mutxikoak

Hegi

pika ta ebats *4

pika, pika ta ebats *4

erdizka *4

jauzi, erdizka, dobla, erdizka *2

pika ta ebats *4

pika, pika ta ebats *4

erdizka *4

jauzi, erdizka, dobla, erdizka

jauzi, erdizka, dobla

luze eta salto bat

Maiana

luze ta jauzi *4

erdizka *4

zeina, zeina, ezker, eskuin,

*ezker ta hiru, eskuin *2*

Zazpi jauziak

erdizka *4

jauzi, erdizka, dobla, erdizka

salto

Larrabürü

erdizka, erdizka ta hiru *2

jauzi *2

ezker, eskuin, ezker ta hiru

erdizka ta hiru, ezker, erdizka

erdizka, erdizka ta hiru *2

jauzi *2

ezker, eskuin, ezker ta hiru

erdizka ta hiru, ezker

luze eta salto bat

Azkaindarrak

jauzi, ebats, dobla, ebats *2

jauzi, erdizka, dobla, erdizka,

ebats, dobla, ebats,

jauzi, erdizka, dobla, erdizka *2

erdizka *4

erdizka, dobla, erdizka

jauzi, ebats, dobla, erdizka *2

jauzi, erdizka, dobla, erdizka

ebats, dobla, erdizka *2

jauzi, erdizka, dobla, luze ta ebats *2

erdizka *4

jauzi, erdizka, luze ta ebats *2

jauzi, erdizka, dobla, erdizka
jauzi, erdizka, pika, dobla, erdizka *2
erdizka *4
esker, eskuin, jauzi, erdizka, eskuin, ezker, dobla
luze eta salto bat

Ostalertsu

erdizka *4
jauzi erdizka dobla erdizka
ezker, eskuin, ezker ta hiru
erdizka *2
eskuin, ezker, eskuin ta hiru
erdizka *2
erdizka *4
jauzi, erdizka, dobla, erdizka
ezker, eskuin, ezker ta hiru
erdizka *2
eskuin, ezker, eskuin ta hiru
erdizka
luze ta salto bat

Aurkibidea

<u>Agur Xiberua</u>	47
<u>Aitoren hizkuntz zaharra</u>	30
<u>Amodioa zoin den zoroa</u>	41
<u>Anttoni</u>	21
<u>Arrantzaleak</u>	23
<u>Artillero</u>	34
<u>Bagare</u>	44
<u>Bale ihizi</u>	3
<u>Baratze bat</u>	4
<u>Begiak farrez farrez</u>	2
<u>Bella ciao</u>	13
<u>Elokadiko mendian</u>	42
<u>Epherrak</u>	16
<u>Eskoziar lore</u>	11
<u>Euskotarrak gira</u>	14
<u>Festarik festa</u>	19
<u>Galerianoaren kantua</u>	45
<u>Gazte naiz eta</u>	25
<u>Guk euskaraz</u>	35
<u>Ikusi mendizaleak</u>	8
<u>In nomine Etxamendi</u>	8
<u>Kalera</u>	9

<u>Kontrapas</u>	<u>35</u>
<u>Kuba</u>	<u>5</u>
<u>Larrosa kolorez</u>	<u>17</u>
<u>La mina Maria Luisa</u>	<u>33</u>
<u>Maddalen</u>	<u>34</u>
<u>Maitasuna</u>	<u>36</u>
<u>Maiteak galdegin zautan</u>	<u>15</u>
<u>Maitia nahi badezu</u>	<u>33</u>
<u>Martxa baten lehen notak</u>	<u>37</u>
<u>Migruela* sagarnoa.</u>	<u>7</u>
<u>Mutxikoak</u>	<u>48</u>
<u>Nere herriko nexkatxa maite</u>	<u>38</u>
<u>Nevadarat joan nintzan</u>	<u>31</u>
<u>Nire Aberria</u>	<u>27</u>
<u>Oi gu hemen</u>	<u>18</u>
<u>Oriko xoria</u>	<u>6</u>
<u>Orreaga</u>	<u>39</u>
<u>Pilotarien biltzarra</u>	<u>32</u>
<u>Topa dagigun!</u>	<u>26</u>
<u>Triste bizi naiz eta</u>	<u>10</u>
<u>Ttiki-ttikitik</u>	<u>20</u>
<u>Txoria txori.</u>	<u>36</u>

<u>Unama</u>	<u>29</u>
<u>Xarmegarria zira</u>	<u>12</u>
<u>Xorieri mintzo zen</u>	<u>43</u>
<u>Zazpiak oihal batetik</u>	<u>24</u>
<u>Ziburutik Sarara</u>	<u>28</u>

